

Omar Alexander Leon Garciak bere Tesia irakurri du

2016/07/08

Uztailaren 7an, goizeko 10:30-etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Omar Alexander Leon Garcia Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua: *Impacto de las tecnologías de la información y comunicación en la diversificación empresarial*, eta tesi zuzendariak: Juan Ignacio Igartua eta Jaione Ganzarain. Gainera Bikain kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- **Mahaiburua:** José Albors Garrigós (Universidad Politécnica de Valencia) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Carlos Ochoa Laburu (EHU-UPV) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Antonio Hidalgo Nuchera (Universidad Politécnica de Madrid (UPM)) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Roberto Uribeetxeberria Ezpeleta (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- **Idazkaria:** Miren Nekane Errasti Lozares (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.



Tesiaren laburpena:

Ekonomia globalaren garapen azkarraren ondorioz, enpresa askok dibertsifikazio estrategia aukeratzen dute, gainera jarduera ekonomiko berriak txertatzea ezinbestekoa da eraldatzeko edo etorkizuneko enpresa bat izaten jarraitzeko. Arrazoi horrengatik, azken hamarkadetan, dibertsifikazioak enpresa munduaren arreta lortu du, baita hainbat arlotako ikertzaileena ere. Azken hauek, dibertsifikazioari eragiten dioten faktore erabakigarriak identifikatu eta enpresa jardueran duten eragina erakutsi nahi izan dute.

Beste alde batetik, informazioaren teknologiak beharrezko osagai bihurtu dira negozioaren biziraupenerako, alde batetik, erakunde bateko balio kateko jarduerak hobetu dituzte eta bestetik, aldatzeko eragin dituzte negozio eredu eta estrategietan. Teknologien eraginez sortutako aldatzea hauek ere, azken urteetako ikerketa akademikoetan garrantzia izan dute, zeintzuetan negozioaren strategiaren arteko eta negozio-prozesuen arteko lotura gisa duten garrantzia erakusten duten.

Enpresa dibertsifikazioari eta informazio eta komunikazio teknologiei buruzko berrikuspen bibliografiko sakon batetik abiatuta, bi osagaiak lotzen dituzten argumentuak identifikatu dira. Berrikuspen honetan frogatu da azken hamarkadetakoa dibertsifikazioari buruzko ikerketek izan duten garrantzia eta erreminta teknologikoak erabaki estrategikoak hartzerakoan eta enpresaren emaitzetan eragina dutela.

Honen aurrean, ikerketa honekin lortu nahi izan dena da informazio eta komunikazio teknologien erabilera mailaren artean eta dibertsifikazio enpresarialaren artean dagoen lotura egiaztatzen duten ebidentziak lortzea, bereziki, Euskal Autonomia Erkideko enpresetan. Hortaz, enpresa alorreko bi faktoreren arteko harremana aztertzea proposatu da: teknologia eta estrategia, hauen arteko harremana testuinguruan jarriko duten azterketen behararen ondorioz.

Azterketaren ekarpenen artean, teknologia horiek enpresaren strategiaren inplementazioan duten garrantzia berresten dela aipatu da. Halaber, agerian jarri da enpresa dibertsifikatuaren errendimenduan duen eragina, hainbat perspektibatatik ikusita (zuzeneko eragile, bitartekari edo moderatzaile moduan). Gainera, identifikatu egin dira erakundearen partaidetza duten negozioen errendimendua osatzen duten elementuen gain eraginik handiena duten teknologiak.